



Jaialdia «Euskal Herriaren nazio izaeraren alde»

ZIZURKIL ▶ Tolosaldeko hainbat lagunenez, hilaren 15ean egingo dute jaiak, herriko plazan

AURKEZPENA ▶ Atzo burutu zuten ESAITen eta Bai Euskal Herriari herri ekimenaren babesarekin ▶ 4

TOLOSA ▶

Udate erabili dutenen kopuruak gora egin du

90 espediente jaso dituzte guztira ▶ 2

Euskadiko Orkestra Sinfonikoaren kontzertuak estreinatuko du Leidor eraberritua, bihar

TOLOSA ▶ Gilbert Vargaren zuzendaritzapean, inaugurazio ofizialeko kontzertuari 20:00etan emango zaio hasiera ▶ 3

LEITZA ▶

Aurrera futbol taldeak igandean ekingo dio denboraldi berriari

Nafarroako Lurreldeko Lehen Mailan ariko da eta Iruñeko San Inazio taldea izango du aurkari ▶ 7



TOLOSA ▶

Koldobika Jauregiren erakusketa luzatuko dute abendura arte

«Ardatz garrantzitsua» delako hartu du erabakia 750 Fundazioak ▶ 2



Kantu isila aire libreko eskultura bat, Zabalarreta parkean. L. MONTES

TOLOSALDEA ▶

Elduain, Bedaio eta Lizartza ere jai giroan

Hamaika ekitaldi andremarietan ▶ 5

UDALA ▶

Gero eta herritar gehiagok erabiltzen dute Udate zerbitzua

2006ko lehen hiruhilekoan 35 espediente jaso zituen Udalak, eta hurrengo epealdian, 20 gehiago



Obra eta Zerbitzuen Saila izan da kexa eta iradokizun gehien jaso dituen orain arte. JOXEMI SAIZAR

ESTI EZEIZA

Hiru hilabete inguru igaro dira, Tolosako Udalak herritarrei Udate Harreta Zerbitzua aurkeztu zientetik. Maiatzaren 30ean emandako prentsaurre-

koaren bidez, prentsan agertuta, eta bestetik, zerbitzuaren berri ematen zuen triptikoa herriko buzoietan banatuta egin zuten hau.

Egitasmoa administrazioaren eta herritarren arteko har-

tu-emanak erosotzeko asmoarekin sortu zen. Urte honen lehendabiziko hilabeteetan jarri zuten martxan zerbitzua, eta orain, Udateren Koordinatzaileak Udate zerbitzuari buruzko txosten bat prestatu du. Ber-

ESPEDIENTEEN LABURPEN TAULA ▶

| Departamentua | Urtarrila-martxoa | Apirila-ekaina |
|-----------------------|-------------------|----------------|
| Euskara eta Hezkuntza | 3 | 2 |
| Departamentu guztiak | 1 | - |
| Idazkaritza | 2 | 2 |
| Kirolak | 5 | 5 |
| Obra eta Zerbitzuak | 10 | 26 |
| Udaltzaingoa | 10 | 15 |
| Hirigintza | 2 | - |
| Kultura eta gazteria | 1 | 6 |
| Festak | 1 | 1 |
| Pertsonala | - | 2 |
| Gizarte zerbitzuak | - | 4 |
| Etxebizitza | - | 1 |
| Iurreamendi | - | 1 |
| Berdintasuna | - | 1 |
| Turismoa | - | 1 |
| Guztira | 35 | 55 |

tan, lehen sei hilabeteetako espedienteen laburpen bat egin du, zerbitzuak eman duen garapena aztertuz. Eta ondorio bezala txostenean gaineratzen duenez, «hobekuntzarik lortu bada ere, oraindik egoera ona izatetik urrun» dagoela dio.

Balorazioa

Lehenengo hiruhilekoan, hau da, urtarrila eta martxoa bitartean, 35 espediente jaso zituzten. Bigarren epean, berriz, 20 gehiago. 55 horietatik 51 erantzun dituzte jada, eta beste 25, epeaz kanpo erantzun dituzte. Bestalde, 4 txosten ireki dituzte, bi epeaz kanpo, eta beste bi epe barruan. Datuek adierazten duten bezala, zerbitzuaren berri eman zenetik, kexa eta

iradokizunen kopuruek gora egin dute.

Erantzunei dagokionez, Udatek ez ditu emandako erantzunak kualitatiboki baloratzan, sail bakoitzak emandakoa bere horretan mantentzen baitu.

Prozesuari dagokionez, jasotako iradokizunak eta kexak, kasu guztietan, egun bateko epean egin dute jasotzetik dagokion sailerako bidea, egun berean izan ez denean. Hala ere, desberdina izan da kexek eta iradokizunek sail bakoitzean izandako eragina. Hala, Hirigintzan eta Zerbitzuetan jaso dute espediente gehien; honen atzetik, berriz, Udaltzaingoa. Honenbestez, aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, joera hori mantendu egin da.

KULTURA ▶

Koldobika Jauregiren kale erakusketa urte amaierara arte luzatuko dute

Ondoren, proiektu honetako eskulturetako bat hirian geratuko da

ERREDAKZIOA

Hasiera batean, Koldobika Jauregiren erakusketa irailera arte bakarrik mantentzea espero bazuten ere, azkenean, 750 Urteurreneko Fundazioak artela-

nak hiriko kaleetan izango direla ikusgai erabaki du, azaro edo abendura arte. Izan ere, erakundearen ustetan, «erakusketa hau urteurrenaren ospakizunen ardatz garrantzitsuenetakoa bat da, eta horrela

izaten jarraitu beharko luke urte amaierara arte».

Bestalde, proiektua osatzen duten 15 eskulturetatik bat aukeratu dute, eta hau, Tolosako hirian bertan geratuko da, behin betiko.



Kantu isila erakusketako piezetako bat. INIGO TERRADILLOS

iragarki laburrak ▶

LANA

Zerbitzaria. Zerbitzaria behar da Tolosaldeko taberna baterako. Lanegun osorako. 677 32 99 34.

Tabernaria. Neska euskalduna behar da lau orduz lan egiteko, Tolosaldean. Eskarmentatua. Deitu 635 74 52 91 zenbakira.

Zaintzailea. Emakume bat behar da ume bat zaindu eta etxeko lanak egiteko, 08:00etaik 11:00etara. Telefono zenbakia: 667 45 51 76.

SALGAI

Furgoneta. Furgoneta salgai. California 2,5 TDI. Extrak. 50.000

km. 2003koa. Interesatuak deitu 685 75 17 43ra.
Txakurkumeak. Setter ingeles (leveling) arrazakoak. Ehiza txakur onen kumeak. Interesatuak deitu 647 144 070 edo 678 066 396 zenbakietara.
Argazki kamara. Nikon D50, Reflex digitala, 18-55 eta 55-200 objektiboak

1GBeko bartela eta poltxa. 10 hilabeteak. Egoera onean. Telefonoa: 600 026 085.

GALDUTAKOAK

Giltzak. Leitzan bi giltza galdu ziren herriko festetan. Norbaitek aurkitu baditu, deitu 948 61 06 35 telefono zenbakira.

▶ TOLOSALDEKO HITZA.INFO

Eztabaida. Zein leku aukeratu duzu udako oporraldirako? Inguruak ezagutzen ibili al zara, edo atzerrira joateko aukera izan duzu? Sartu gure web orrialdean.eta kontatuiguzu non ibili zaren.

HEZKUNTZA ▶
Helduen ikastetxeko matrikulaketak

Tolosa eta Villabonako Helduen Hezkuntzako ikastetxe publikoko matrikulazioa zabalik dago. 18 urtetik gorakoentzako hauek izango dira, besteak beste, eskainiko dituzten dohako ikastaroak: DBH graduatua, unibertsitateko sarrera 25 urtetik gorakoentzat, Lehen Hezkuntza, etorkinentzako gaztelaniazko ikastaroak, euskara, ingelesa eta frantsesa. Informazio gehiagorako, 943 67 26 60 edota 943 69 03 12.

HEZKUNTZA ▶
Bihar hasiko dute ikasturtea Orixe institutuan

Bihar izango da ikasturte berriko aurkezpen eguna Orixe institutuan. 10:00etan hasiko dira Batxilergoko lehen mailakoak eta 11:00etan bigarrenekoak.

TELEFONOAK ▶
Larrialdiak. ((112)) Osasuna.

- ▶ **Alegialdea.** Osasun z.: 653212
- ▶ **Anoeta-Alkiza-Hernialde.** Medikua: 65 23 39
- ▶ **Asteasu.** Medikua: 692423
- ▶ **Baliarrain.** Medikua: 889003
- ▶ **Berastegi-Elduain.** Medikua: 683361
- ▶ **Bidegoian.** Medikua: 681134
- ▶ **Ibarraldea.** Osasun etxea: 672411
- ▶ **Ikaztegieta.** Medikua: 653329
- ▶ **Irura.** Osasun zentroa: 690720
- ▶ **Leitza.** Osasun z.: 948 510800
- ▶ **Orendain.** Medikua: 655595
- ▶ **Orexa.** Medikua: 682228
- ▶ **Tolosa.**

- ▶ Anbulatorioa, larriald: 461111
- ▶ San Esteban: 006800
- ▶ Gernikako arbola: 006900
- ▶ Amaroako dispen.: 672637
- ▶ Asunzion Klinika 675799 -

67 53 90 (larrialdiak)

- ▶ DYA: 672536
- ▶ Gurutze Gorria: 674888
- ▶ Villabona. Anbulat.: 006970
- ▶ Zizurkil. Aiztondo zerb: 693930

Garraioak.

- ▶ Renfe: 902 24 02 02
- ▶ Donostiako autobusa: 361740
- ▶ Tolosaldea bus: 650621
- ▶ Leitzaran autob.: 948 221015
- ▶ Taxia: 670420
- ▶ Taxia (Leitza): 608 873016

Besterik.

- ▶ Ertzaintza: 538820
- ▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675858
- ▶ Tolargi: 650016
- ▶ Iurreremendi egoitza: 670325
- ▶ Tolosa gasa: 675320

MUSIKA ▶

Leidor eraberritua bihar estreinatuko da Euskadiko Orkestra Sinfonikoarekin

Inaugurazio ofizialeko kontzertuari 20:00etan emango zaio hasiera; sarrerek eskuratzeko hainbat bide jarri dituzte

IÑIGO TERRADILLOS

Urtebete eraberritze lanetan egon ondoren Leidor aretoa prest dago ikuskizunak bertan eskaintzeko. Eta, hain zuzen ere, bihar izango da inaugurazio ofiziala, Euskadiko Orkestra Sinfonikoaren kontzertuarekin. Gilbert Vargaren zuzendaritzapean, 20:15ean hasiko da estreinako emanaldia. Kontzerturako sarrerek Leidorreko lehiatiletan —gaur eta bihar, 18:00etatik 20:00etara— Servikutxa kutxazainean, www.kutxa.es webgunean edota telekutxaren 943 001200 telefono zenbakian eskuratu ahal izango dituzte ikuskizunaz gozatzera bertara joatera animatzen direnek.

Kontzertuari dagokionez, Gilbert Vargak egingo ditu zuzendari lanak; Arriagaren *Mirabe zorientsuak* obrako obertura, Milhaud-en *Le boeuf sur le toit* obrako Op. 58a eta Dvorak-en *9. Sinfonia* —kontzertino: Lorenz Nasturica Herschcowici— izango dira taularatuko dituzten obrak.



Euskadiko Orkestra Sinfonikoa. HITZA

DATUAK ▶
KONTZERTUA

Eguna eta ordua. Bihar, 20:15ean.

Emanaldia. Euskadiko Orkestra Sinfonikoaren kontzertua.

Sarrerek. Leidorreko takilan, Servikutxan, www.kutxa.es-en edota 943 001200 zenbakian, 12 euroren truke.

EGITARAU

▶ Arriaga: *Mirabe zorientsuak*: obertura.

▶ Milhaud: *Le boeuf sur le toit*, Op. 58 a, (J. Cocteau-ren balleta).

▶ Dvorak: *9. Sinfonia*, Op. 95 *Mundu Berriaz*. Kontzertino: Lorenz Nasturica.

Zuzendaria. Gilbert Varga.

Erreferentziako orkestra

Bere sorreraren 25. urteurrena betetzeko gutxi falta denean, Euskadiko Orkestra Sinfonikoa Espainian, besteak beste, erreferentziako diren talde sinfonikoetariko bat bilakatu da. Euskadiko kultura eta gizarte zereginean erabat finkaturik dago, horren adibide bere kontzertuetara abonaturik dauden 7.000 pertsonen baino gehiagok osatzen duten oinarri sendoa, bere historiako babes handienarekin abonatupei dagokionez, %92ko okupazioarekin.

150.000 ikusle baino gehiago izan ditu azken urteetan, eta horren ondorioz, musika klasikoa arloan Euskal Autonomia Erkidegoan ikusle gehien jasotzen dituen musika entitate bilakatu da Euskadiko Orkestra. Nazioartean, berriz, hainbat bira burutu ditu, Argentina, Txile, Alemania, Austria, Suitza, Frantzia eta Britainia Handian zehar. 2001. urtetik aurrera Cristian Mandeal eta Gilbert Vargak partekatzen dute 1982an Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sailak sustaturik eta garaturik sortu zen Orkestra honen Zuzendaritza Musikala.

MUSIKA ▶

Hodeiertz eta Aoi Tori abesbatzak igandean San Frantzisko elizan

19:30ean hasiko da kontzertua; Abesbatza Lehiaketako kartela ere aurkeztuko dute

I. TERRADILLOS

CITek antolatuta, Aoi Tori japoniar abesbatza eta Hodeiertz abesbatza zuzenean entzuteko aukera izango da igandean, 19:30ean, San Frantzisko elizan.

Hodeiertz abesbatza hasiko da lehendabizi kantuan, eta Japoniako Aoi Tori-ko emakumezkoen koruak jarraituko dio. Halaber, bakarka aritzeaz gain, bi abesbatzak elkarrekin lau

abesti kantatzen ikusteko aukera ere izango da. Hodeiertz —Enrike Azurzak zuzentzen du— gurean ezaguna bada, Japoniako abesbatzako zuzendaria, Fumiaki Kuriyama, ere aski ezaguna da, izan ere, hainbat korurekin hartu du parte Tolosan, eta Abesbatza Lehiaketako epaile ere izan da. Zarautzen, Deban eta Donostian aritu ondoren, Tolosan amaituko du Aoi Tori abesbatzarekin azken asteetan buruturiko bira.



Japoniako Aoi Tori abesbatza. HITZA

Kartelaren aurkezpena

Kontzertu hauekin CITek 750. urteurreneko ospakizunekin bat egin nahi izateaz gain, «38. Abesbatza Lehiaketako egunak hurbiltzen ari direla ikusirik, kartel iragarlea beste urteekin alderatuz beste modu ba-

tera aurkeztu nahi izan dugu». Hala, beste urteetan ez bezala, lehiaketa bidez aukeratu dute aurtengo Lehiaketako kartel iragarlea, eta Dorleta Martinezek eginikoa izan da irabazlea. Kartelaren aurkezpena kontzertuen aurretik egingo dute San Frantsisko elizan bertan.

ZIZURKIL ▶ POLITIKA

«Euskal Herria nazioa dela» aldarrikatzeko jaialdia

Tolosaldeko hainbat lagunek deituta, hilaren 15ean egingo dute herriko frontoian

IMANOL GARCIA

Tolosaldeko hainbat lagunen ekimenez jai eguna antolatu dute «Euskal Herria nazioa dela» aldarrikatzeko. Zizurkil-ilen izango da, hilaren 15ean, atzo Donostiako hotel batean egindako aurkezpenean azaldu zuten. Mikel Arrastoa aritu zen bozeramaile lanetan. Berarekin izan ziren mahaian Inaxi Otegi, Naroa Geresta eta Maialen Azkue. Hauekin batera, ekitaldiari babes eman dioten Bai Euskal Herriari herri ekimenetik Mikel Luluaga eta ESAITetik Mikel Urkola izan ziren. Aurkezpenean ere izan zen, besteak beste, Juan Manuel Erasun segalari eta aizkolari.

Nazio bat garelako EHNA erabiliaz bizi izango da jaiaren leloa. Aurkezpenean azaldu zuten, «euskal herritarrez osaturiko nazioa da Euskal Herria. Euskal naziotasuna aldarrikatzetik egikaritzera, jauzi egin nahi duen jendartea; hitza eta erabakia hartu nahi duen Euskal Herria». Euskal Herriaren «nazio izatea bultzatzeko helburuarekin» antolatu dute jaiak. «Herri eta nazio gisa gure izatearen ardatz sozial, kultural nahiz politikoak elkar uztartuz jaiak eta aldarrikapena burutzeko» da antolatzaileen asmoa.

Ez da aurrera eramaten duten lehenengo ekimena eskualdean. «Azken urte beteetan ehunka lagunek egin dute EHNA Tolosaldean», zehaztu zuten. «Uda honetan, berriz, zehazki abuztuaren 13an eta 15an, Euskal Herriaren nazio izatea eta euskal selekzioen beharrak aldarrikatu genituen Adunan eta Zizurkil-ilen antolaturiko jaialdietan».

«Guztiak beharrezko»

Hilaren 15ekoan, herri kirolen bitartez euskal selekzioak aldarrikatuko dituzte eta geroko



Jaialdiaren antolatzaileek eta babesleek atzo egindako aurkezpenaren une bat. HITZA

EGITARAUA ▶

19:00. Herri kirolak, *Nazio bat garelako, euskal selekzioak* lelopean. Trontzalariak, txingak, lokots biltzaileak, toka eta soka tira ikuskizuna.

20:00. Ekitaldia frontoian, *Nazio bat garelako, EHNA erabiliz bizi!* lelopean. Txalaparta, adarra, dantzariak, bertsolariak eta abar. Gero, Bai

Euskal Herriari herri ekimeneko kideek hitza hartuko dute.

Ondoren. Herri afaria frontoian bertan. Afalostean, kantaldia.

ekitaldian Bai Euskal Herriari herri ekimeneko kideek hartuko dute hitza. Ondoren, herri afaria egingo dute eta bukatzeko kantaldia. Antolatzaileek parte hartzeko deialdia luzatu zuten atzokoan: «Nazio bat osatzen dugu Euskal Herriaren partaide garen herritar guztiok. Horregatik eta euskal herritar guztiok beharrezko garelako antolatzen dugun jai honetan parte hartzea gonbidatzen zaituztegu».

Herri afariari dagokionez, hilaren 13ra arte salgai izango dira txartelak, 16 euroren truke, eskualdeko ondorengo lekuetan: Adunan, Uztartza ta-

bernan; Tolosan, Raku, Orbela eta Denak tabernetan; Ibarra, Atari tabernan; Villabonan, Rainbow, Xiker eta Irualdeta tabernetan eta Larrea okindegian; Anoetan, Itzuli tabernan, Zizurkil-ilen, Aurrera, Egarrri eta Iriarte tabernetan; eta Asteasun, Patxinen. Soberan geratutako balira, Zizurkil-ilen jarriko dituzte salgai azken txartelak.

Denen ahotan den prozesua ere ez dute ahaztu aurkezpenan: «Guztiok dakigun bezala Euskal Herria zerbait bada, euskal herritarrez osaturiko nazio bat da. Hau lortu ahal izateko guztion parte-hartzea beharrezkoa izango dugu. Helbu-

rua argia da, Euskal Herriaren abiatzeko den prozesuaren emaitzak, beste hainbatetan artean, euskal herritarren naziotasun eskubidea aintzat hartu behar du. Horregatik jaialdi honen bidez ere prozesuari bultzak egin nahi diogu Euskal Herria eraikiz».

Bestalde, antolatzaileek gaineratu dutenez, jaialdiaren egunean EHNA tramitatzeko aukera izango da, 18:00etatik 20:00etara, Iriarte kultur etxean. Errolda agiria, hiru argazki eta hamabost euro aurkeztu beharko ditu EHNA egin nahi duenak.

AMEZKETA ▶

Zumadi eskolan bihar hasiko dute ikasturtea

Amezketako Zumadi eskolatik igorri duten oharrak dioenez, bihar hasiko dute bertan 2006/07 ikasturtea.

VILLABONA ▶

Udalak diru eske dabilzanekin «ez du zerikusirik»

«Villabonako Udalaren ize-nean, eta beraiek diotenez Bosniako haurrei lagutzeko, etxez etxe diru eske ari den jendea herrian zehar dabilela», jakin du Udalak. Horren aurrean, ohar bat helarazi du, «pertsone horiek Villabonako Udalarekin zerikusirik ez dutela» jakinaraziz.

VILLABONA ▶

Astelehenean abian, Oinkariren ikastaroak

2006-2007 ikasturtea hasi berri den honetan, Oinkari dantza taldeak haurrei zuzenduriko ikastaroei berehala ekingo die. Hain zuzen, astelehenean, hilak 11, hasiko dituzte. Taldeak eta ordutegiak dantza taldearen web orrian (www.oinkari.net) daude ikusgai. Bestalde, Oinkaritik azaldu dutenez, oraindik ere inork izenik eman nahi izango balu, ikastaroen ordutegian Txermingo Ikastolako ganbarara ingurtezka besterik ez du.

ZIZURKIL ▶

De Juanaren askatasuna eskatuko dute

Etxerateg manifestaziora deitu du gaurko, Iñaki De Juana euskal preso politikoaren askatasuna eskatuz. Manifestazioa 20:30ean aterako da Joxe Arregi plazatik, *Iñaki askatu!* lelopean.

iragarki laburrak ▶

LAN HEZKUNTZA

Osakidetza. Lanpostuak betetzeko jendea behar da: Osasun-Laguntzaile Teknikoa, erizain laguntzaileak, laborategiko langileak, izpietan teknikoak. 943 313782.

Bergara, Hernani, Erreterria.

Ondorengo lanpostuak betetzeko langileak behar dira: peoiak, garbitzaileak, lorezainak. Informa zaituzte: 943 313782. **Langileak hainbat zerbitzuetan.** Postu finkoak betetzeko behar dira.

Zazpi orduko lanaldiarekin.

943 313782.

Hezitzaileak-Zaintzaileak.

Haur eskoletarako behar dira.

943 313782.

Gidaria. 35 ordu astean lan egiteko.

Eusko Jaurlaritzak. 943 313782.

Harreragileak-Administrari

laguntzaileak. Erakunde publikoetan lan egiteko behar dira. 7 orduko lanaldia. 943 313782. **Suhiltzaile** postu libreak. Deialdi irekia. 943 313782. **Foru Aldundiak** sukaldari

laguntzaileak eta garbitzaileak behar ditu. 943 313782.

Anoeta, Beasain, Bergara, Soraluze, Mutriku, Zizurkil eta Mendaroko udalbatueetan administrari laguntzaileak behar dira. 943 313782.

JAIK ▶

Uda hasierakoak bezain onak

NEREA URBIZU

Uda parte alde batera uzita ere, ez da giro hainbat herrietan. Oraindik badago gozatzeko aukera, Lizartzan, Elduainen eta Bedaion, besteak beste. Azpimarratzekoa da Bedaion ikusi ahal izango den herri kirolak saioa; izan ere, Juan Manuel Erasun segalaria izango da igande arratsaldean.

Horrez gain, bertako *Ingurutxo*a eta baita antzerkia ere ikusi ahal izango dira. Gonbitea zabaldu dute bedaiotarrek.

Elduainen ere giro ederra izatea espero dute. Horretarako, antzerkia, Berastegiko motozerrariak edota umeentzako ekitaldiak prestatu dituzte, egitarau oparo baten barruan.

Lizartzan egun gehiago, eta egitaraua ere oparoagoa izango dute. Irrintzi Txapelketa interesgarria izango da larunbata eta igandeko gauaren baitan. Han ere ez da faltako antzerkirik, ezta musikarik ere. Zaila, hortaz, asteburu honetan non ibili erabakitzea.

Hauek dira hiru herrietan izango diren ekitaldi dibertigarriak, Andre Mariaren jaien baitakoak, alegia.

LIZARTZA GAUR.

19:00. Poteoa tabernetan.
20:00. Kalejira Karobitxulo trikitixa taldearekin.
Ondoren. Koadrilen arteko afaria.
00:00. Txupinazoa eta danborrada.

BIHAR

10:00. Diana, Lizardi txistulari taldearekin.
12:00. Jubilatuentzat hamai-ketakoa, Txirrita elkartearen.
14:00. Jubilatuen bazkaria, Ostatuan.
18:00. Herri antzerkia eta dantzari txikiak.
19:00. Sagardo dastaketa herriko plazan.
23:30. Preso, iheslari eta errefuxiatuen aldeko kalejira.
Ondoren. Kontzertuak Gazte-txean: Biok, Ehzitari eta Laket.

ETZI, LARUNBATA

10:00. Diana Karobitxulo trikitixa taldearekin.
16:00. Mus Txapelketa Itzalan.
17:00. Ume jolasak eta txokolatada.
18:00. Pilota partida: Xabat-Erik Aitor-Aitzolen aurka.
Iluntzean. Zahagi ardoa. Afaria bakoitzak eraman behar du, eta ardoa han egongo da.
00:00. Burrunba, *Egibar aldeintzak!!!*. Ostean, Gaztetxean akelarrea DJ Zezengorriekin.

Elduain, Lizartza eta Bedaio oraindik ere falta dira jaiak igarotzeko, eta ez dira atzean geratu: euskaldun onak bezala, herri kirolak eta musika ez da faltako



Erasunek Bedaion aterako du sega azkeneko. ANDONI CANELLADA / A.P.

Goizaldean. Irrintzi Txapelketa, ahotsa gorde dutenekin.

IGANDEA

10:00. Diana, Lizartzako gaiteroekin.
12:00. Poteoa.
14:30. Herri bazkaria, txartela aurretik dutenentzat.
18:00. Dantza Soka.
Ondoren. Herri kirolak.
Bukatze. Azkeneko hondarrik edango dituzte.

ELDUAIN

BIHAR
10:45. Hasiara, suziriekin.
11:00. Meza Nagusia, Santa Katalina elizan.
12:00. Hamaiketakoa Kontzeju tabernan.
17:30. Haur jolasak, eta ondoren. Gorriti bere animaliekin.
20:00. Alurr dantza taldearekin dantza ikuskizuna.
23:00. Laiotz taldearen emanaldia herriko plazan.

ETZI, LARUNBATA

10:00. Gosaria Urdelar Biltokian.
10:45. Haur eta gaztetxoentzat puztarriak herriko frontoian.

18:00. Gorringo antzerki taldearen eskutik *Asto bat hipodromoan* haur ikuskizuna, Kultur Etxean.

19:00. Berastegiko motozerrariaren erakustaldia.
20:00. Sagardo dastaketa, pin-txoekin batera.
20:00. Iñaki Galarraga eta Irati Aizpurua trikitilariak.
21:00. XXXVII. Toka Txapelketa.

00:00. Abiba diskojaja (autobus zerbizua izango da Tolosa-Elduain-Tolosa, ohiko tokietan, 23:30etik 04:00etara).

IGANDEA

10:00. Meza Nagusia.
11:00. Sardinekin hamaiketakoa, ardoa eta txakolinaz lagunduta, herriko plazan.
12:00. Profesionalen arteko pilota partidak: Mikel-Elola, Amarika-Jabi Gomez bikotearen aurka. Eta ondoren, Barberito VI-Altuna, Bengoetxea VII-Arretxearen kontra.
18:00. Niko eta Periko pailazoen haur ikuskizuna herriko plazan.
19:00. Herri kirolak: Miren Urkiola harrijasotzailea, eta Joxe



Lizardi txistulari taldekoek diana egingo dute bihar. INIGO TERRADILLOS

Bikondoa aizkorarekin, buruz behera, motozerrarekin...
20:00. Iñaki Galarraga eta Irati Aizpurua trikitilariaren musika emanaldia.

BEDAIO

BIHAR
11:00. Meza Nagusia.
Ondoren. Hamaiketakoa.
13:00. Toka Txapelketa.
19:00. Pilota partidak.
21:00. Zahagi ardoa.
Ondoren. Elustondo anaia-arebekin, goizaldera arte.

ETZI, LARUNBATA

18:00. Ume jolasak izango dira arratsaldean.
20:00. Antzerkia: *Baserriko bizimodua*, herriko emakumeak

barne. Plaza txikian izango da, duela 50 urte bezala.
21:00. Herri afaria.
Ondoren. Zabala eta Larrañagarekin gaupasa.
05:00. Baratxuri zopa.

IGANDEA

11:00. Meza Nagusia, Irma Karrera trikitilariarekin.
13:00. XVII. Txirringularen Igoera (federatu gabeak).
19:00. Herri kirolak: Juan Manuel Erasun aizkolaria ariko da bere segarekin.
20:00. Bedaio *Ingurutxo*. Lau belaunaldi batera. Zaharrenek 60 urte eta gazteek 6. Irma Karrerak emango dio jaietara bere trikitixa doinuarekin.

OKINDEGI
GOZOTEGIA

ERROTATXO

Euskal herria, 26 • Ibarra
Tel.: 943 67 40 53

hitza

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAN praktikak egin nahi?

Kazetaritza, Euskal Filologia eta Komunikazioan lizentziaturiko Euskal Herriko Unibertsitateko ikasleei zuzendua

Urritik abendura aritzeko lanaldi erdiz Kredituak baliozkotuko dira

Curriculum-a bidali helbide hauetara, irailaren 13a baino lehen:
Araba etorbidea, 5. atzea • 20400 TOLOSA
tolosaldean@tolosaldekohitza.info

IBARRA ▶ KULTURA

Alurren 'Giro' arrakastatsua

Ibarraren nortasuna eta izaera ezagutarazi du dantza taldeak Italian eginiko kultur trukean

MADDI SOROA

Uztailaren 24tik abuztuaren 4ra bitarte, Alurr dantza taldeko 31 lagun Italiako Perugian kokatzen den Castiglione del Lago herrian izan ziren, Europako Gazteria programaren baitan. Bertan, Agilla e Trasimeno dantza talde italiarrarekin, jarduera eta ekintza ezberdinez osatutako kultur trukea gauzatu zuten, sei egunetan zehar. Turkia eta Indonesiako talde bana ere izan zen bertan.

Ibarrako taldeak euskal folkloreak erakustaldia egiteaz gain, euskal kulturaren inguruko hainbat tailer prestatu eta burutu zituzten italiarrentzat, italiarrek ere gauza bera egin zutelarik Ibarrako gazteentzat. Dantzari dagokionez, arin-arina eta fandangoa irakatsi zizkieten ibartarrek italiarrei; haiek, berriz, bertako dantza herrikoia. Hizkuntzaren kasuan, euskara zer den eta zein egoeratan dagoen azaldu zitzaizkien italiarrei. Ibartarrek, ostera, italiar hitz egiteko adina ez, baina hitz eta esaldi solteak ikasi zituzten. Musika arloan, txalapartaren existentzia ezagutu zuen Agilla e Trasimeno taldeak. Aipatu, gainera, oso lurratuta geratu zirela instrumentu honen komunikazio izaera eta hotsarekin. Alurrekoek, berriz, bandurriaren nondik norakoak ezagutu zituzten italiarren eskutik. Azkenik, gastronomia lantzeko aukera ere izan zen dantzarien artean. Ibartarrek euskal taloa nola egiten zen erakutsi zieten bertakoei; trukean, mundu osoan hain ezaguna den italiar pasta egiten ikasi zuten.

Alurr dantza taldeko arduradun Eli Nosellasek azaldu duenez, «sekulako esperientzia ederra eta baikorra» izan da gazteen arteko kultur trukea, era berean, «zirrara» sortu duelarik herrian. Alde batetik,



Italiako Castiglione del Lago herrian, Agilla e Trasimeno talde italiarrarekin eginiko desfilea. HITZA



Italiako eta Turkiako dantzariak gain, Indonesiako dantzariarekin —irudian— ere egon ziren ibartarrak. HITZA

kulturaniztasuna garatu dutelako gazteek eta honen aberasgarritasunarekin jabetu direlako. Eta, bestetik, Ibarrako enbaxadore lana bete dutelako Italian, Ibarraren nortasuna eta izaera lau haizetara zabal-

duz. Dantzarien harremanari dagokionez, hasiera-hasieratik «kimika» antzekoa sortu zela diote dantzariak, hizkuntza komunikatzeko traba izan ez zelarik.

Gogoratu, Alurr dantza tal-

deko gaztetxoek lan handia egin behar izan zutela horrelako ekimen bat prestatzen, besteak beste, beharrezko materiala jaso eta tailerrak prestatu. Balorazioa egiterakoan, ordea, gustura agertu dira lor-

turiko emaitzarekin esperientzia «ahaztezina» izan dela baieztatuz.

Alurren helburuak

Alurreko dantza taldekoek sei helburu nagusi ezarri zituzten Italiako Agilla e Trasimeno dantza taldearekin eginiko trukekerako; aniztasuna aberasgarria gertatzen dela kontzientziaztea; beste errealitate batzuk ezagutzeko, talde eta garapen pertsonal prozesutaz bizi; kultura eta nazionalitate desberdinetako gazteen topaketa eta elkarrizketa erraztea; dantza eta musikaren bitartez gazteen arteko komunikazio kulturala ahalbideratzea; norberaren kulturarekiko hausnarketa kritikoa sustatzea; eta gazteen artean errespetua, elkartzasuna, elkar ulertzea eta enpatia moduko baloreak garatzea.

Gazteria programa

Gazteria programa 15 eta 25 urte bitarteko gazteei eta gazteria arloan lanean dihardutenei zuzendua dago. Aipatu, kultura, gizarte, gorputz, adimen, ekonomia edo geografiaren aldetik zailetasun handienak dituztenei erraztasunak jartzeko zaizkiela programa honetan parte hartzeko.

Gazteria programa, Eusko Jaurlaritzako Gazteria eta Gizarte Ekintza Zuzendaritzak kudeatzen du, Gazteriaren Institutuarekin lankidetzan. Aipatu programa, Europako Bata-sunak bultzatzen du Hezkuntza eta Kulturaren Zuzendaritza Nagusiaren bitartez. Gazteria Programaren iraupena 2000tik 2006ra izango dela aurreikusia dago eta 350 miloi euroko aurrekontua du.

Gazteria programak hainbat helburu ditu; Europaren erakuntzan gazteen esku-hartze gogotsua sustatzea, gaitasunak eta ezagutzak garatzea, gazteak gizarteratzea, hartara hiritartasun arduratsua izaten laguntzeko eta aukera berdintasuna lortzea. Gisa honetako ekimenez gazte taldeen arteko trukeak egiten laguntzen dute. Hala, batetik, gazteen garapen pertsonalari eta prestakuntzari lagundu nahi zaie. Bestetik, beste herrialde batzuetako bizitza ekonomikoa, soziala eta kulturala ulertzen lagundu nahi zaie, herrialde horietako biztanleekin harreman zuzena edukiz.

TOLOSALDEAKO KOMUNIKABIDE ENPRESA BATEK KUDEATZAILEA behar du (Erref.: 06-THK)

Enpresaren kudeaketaz arduratzeaz gain (justiaren ekonomikoa, finantzak, fakturazioa, harpidetza eta diru iturri berrien sustapena, giza baliabideak, diru laguntzak, ...), eragile ezberdinekin izan beharreko harremanen kargu egingo den pertsona baten bila gabilta.

Eskatzen da:

- Kontutan hartuko da Kudeaketa-Administrazio arloko ezagutza izatea, antzeko lanetan aritua izatea eta eskualdea ondo ezagutzea.
- Euskara maila ona.
- Izaera dinamikoa, harremanetarako eta antolakuntzarako gaitasuna
- Gida baimena eta autoa edukitzea

Interesa dutenek curriculuma, irailaren 13a baino lehen, erreferentzia zehatzak, helbide honetara bidali:

Helbide elektronikoa: gizabaliabideak@jarduna.net

Posta Helbidea: Jarduna, S.L. (Giza Baliabideak Saila)
Martin Ugalde Kultur Parkea. 20140 - Andoain

ZIZURKILGO UDALA

Festa giroaz goza dezazuela egun berezi hauetan!

Tel.: 943 99 10 12
Teodoro Hernandez, 6 • 20159 Zizurkil www.zizurkil.com

LEITZA ▶ KIROLAK

Aurten, aurrera

Aurrera futbol taldeari ere ligan hasteko tenorea heldu zaio; igandean jokatuko du 06-07ko aurreneko partida Arkixkilen

JAIONE ASTIBIA

Igandean ekinen dio ligari Aurrera futbol taldeak: Iruñeako San Inazio taldea izanen du arerio Arkixkilen, oraindik zehaztekoa dagoen orduan, gaur-biharretan jakinaraziko omen diete eta.

Nafarroako Lurraldekako Lehen Maila horretan, beraz, 2006-07 liga hastear dago; eta hasi ere antolamenduko aldatzeko jositako eginen dute; bestalde, Aurrera taldeak berak ere berrikuntza batzuz izan dituela adierazi diote TOLosaldeko eta LEITZALDEKO HITZARI taldeko ordezkariak.

Pasa den denboraldian batez ere igoera fasean gertatutakoak ekiditeko, denboraldi honetarako ligarako araudi berria asmatu dute: maila honetako herrialdeko taldeek 6 multzotan banatuta jokatuko dute, bakoitza bederatzi futbol taldez osatuta daudenak. Sail bakoitzean, joanerako eta etorrerako partidu bana jokatuko dute taldeek, alegia, 18 jardunaldi izanen ditu ligak (16 partida eta 2 atsedeneoak) eta hala, abenduaren 17an jokatuko dute azken partida.

Liga honetan, multzo bakoitzeko aurreneko hiru taldeek jokatuko dute igoera fasea. 18 futbol talde izanen direnez, 9 taldeko bi multzotan banatuta jokatuko dute azken txanpa hori, beste 18 jardunalditan zehar: zuzenean, multzo bakoitzetik, puntu gehien eskuratu dituzten hiru taldeak igoko dira Nafarroako Lehenatasuneko Mailara.

«Garbiagoa»

Aurrera taldekoen iritziz, «aurten asmatu duten modu hau garbiagoa da: sinpleagoa eta urte guztiko lana ez da partida

HAINBAT DATU ▶

2006-07 DENBORALDIA

Maila. Nafarroako Lurraldekako Lehen Maila; 3. saila.

Entrenatzaileak. 1. goa: Jose Luis Arrizurieta *Arri*;

2.a: Juan Karlos Garate.

Jokalariak. Antton Abruzza eta Ibai Elizalde; Iker Aizagirre *Txoko*, Unai Olano, Iñaki Zabalo, Mikel Azpiroz, Ibai Urriaga, Iñigo de Karlos, Garikoitz Etxegarai, Iker Bengoetxea, Mikel Barberia; Dani Alvarez, Xabi Urriaga, Eneko Andueza, Iñaki Antolin, Joanes Zeballos, Arkaitz Bengoetxea, Hegoi Bengoetxea, Xabier Romero, Iñaki Galañena; Jon Arangoa, Antton Gomez, Eneko Gorostiaga.

Beste taldeak. Beti Kozkor (Lekunberri), Ardoi (Zizur Nagusia), Etxarri Aranatz, Lezkairu-Rematxa, San Kristobal (Berriozar), San Inazio (Iruñea), Nafarroako Unibertsitate Publikoa, Altsasu.

bakarrean jokatzen, jarraia da; beraz, guretzat hobea da». Izan ere, lehengo igoera fasean asko sufritu zuen talde leitzararak, «zelaian arbitroengandik jasan zuen tratuaengatik».

Aitatu, orduko ondorioak ordainduz hasiko duela liga Aurrerarak, gainera, multzo bakoitzetik 5 jokalarik zigorrak betetze-koak dituzte, eta honetakoan egin beharko dute: Aizagirrek partida 1, Elizalde 3, Urriagak 1 (4 hasieran), Alvarezek 5 eta Anduezak 4 (3 hilabetekoa zuen hasieran), orduan entrenatzaile zenarekin, Irujorekin batera (aurten denboraldian ez du jarraituko). Azken bi hauetako kapitaina eta ze-

laieko delegatua zirelako ezarri zieten zigorra ekainaren 11n.

Aitaturako jokalarari hauetatik gehientsuenak titular izaten dira normalean; beraz, hastear dagoen denboraldi honetan taldeko lehen entrenatzaile izanen den Arrizurietak hortxe izanen ditu aurreneko kezkak; baina non aukeratua ere badu, beste 18ren artean. Hautetan, gainera, M. Barberia, Romero eta Galañena jokalaririk berriak izanen ditu tartean, azken hau jubeniletako taldeetik igotakoa.

Jubeniletakoak harrobi

Edozein moduz, jubenilen taldea sortuta dago aurten ere, hauek beranduago hasiko dira jokatzen, eta «talde handian jokalaririk behar direnean bertako futbolari gazteak sartzen ditugu», azaldu dute. «Aurreko denboraldian, gainera, azken partidu erabakior haietan, aldi berean bost ere deituak izan ziren eta emaitza oso onak izan ziren, eta aurten ez dugu aldaturiko. Bertakoekin osatuko dute taldea, beraz.

Jakitera eman dutenez, taldean 7 jokalarik eman dute baja, bestalde.

Taldeak bi aste daramatza entrenatzen eta «gogotsu» omen daude jokatzen hasteko. Gainera egokitu zaien multzoarekin ere «konforme» daude. Multzo bakoitzean igoeran parte hartutako bina talde sartu dituztelarik, Aurrerarekin batera San Inazio ariko da. Bestela, talde ezagunak dituzte eta bakarra da Lehenatasuneko mailetik jetsia, Etxarri Aranatz. «Itxuraz, ez da oso multzo lehiatsua», iritzi zioten. «Lehengo denboraldian adinako animoekin aurten lortuko dugun», zioten. Igandean dute Aurrerazaleek lehen hitzordua.

LEITZA ▶ KIROLAK

Bihartik aurrera, azken sailkapenak Amazabalen

Leitzako II. Pilota Txapelketako bigarren jardunaldiak jokatuko dituzte astenburuan

J. ASTIBIA

Bihar, etzi eta etzidamu jokatuko dituzte Leitzako II. Pilota Txapelketako finalerdietarako sailkapeneko azken saioak Amazabal pilotalekuan. Izan ere, lehen saioa iragan astenburuan jokatuko zuten.

Aitatu, saio hauetan ere izango dela bertako Aurrera pilota eskolako ordezkariak: benjaminetan jokatuko duen Mikel Sagastibeltza Lasarte, alebinetan eginen duten Jon Iparragirre eta Ibai Gil, infaniletan ariko den Jon Jaunarena, kadeteen mailako Oihan Aduntzin eta jubeniletako Aimar Lansalot (berez Lekunberriarra), hain zuzen ere.

PARTIDAK ▶

BIHAR, 19:30EAN

Kadeteak. Galartza-Gartzia/Ansotegi-Zelaieta.

Jubenilak. Idoate-Etxeberria/Eskudero-Nuñez.

Seniorrak. O. Gonzalez-Jauregi/Olaetxea-Irureta.

ETZI, 09:30EAN

Benjaminak. Sagastibeltza L.-Larunbe/Espelosin-Santex; Aburuzza-Casa/ Salegi-Naval.

Alebinak. Iparragirre-Jaka/Maiza II.a-Yoldi; Gil-Lasa/Erostarbe-Apeztegia.

Infantilak. Iraoz-J. Iraola/Oliaz-Tainta; Idoate-Jaunarena/Juaristi-Galartza.

LEITZA ▶ HEZKUNTZA



Ttikienak hasi dira eskolan

J. Astibia ▶ Atzo zuten Leitzako haur eskolan ikasturteko lehen eguna. Aurten, Leitzako eta Aresoko 36 haur izanen dira bertan, hiru gelatan banatuta. Aste honetan zehar, ordu eta erdiko saioak eginen dituzte, bi txandatan banatuta, eta, gainera, gurasoen laguntzarekin eginen dituzte ordu horiek. Iaz bertan izandakoek ez ezik, aurreneko eguna zutenak ere ederki ibili ziren. J. ASTIBIA



KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

▶ hilberriak ▶ urteurrenak ▶ eskertzak

Gipuzkoan 50.000 etxetara

HITZA guztietan prezio beragatik

ESKELAK

19:00ak arte hartzen dira

Telf.: 943 65 56 95

tolosaldean@tolosaldeko-hitza.nfo



ESKUALDEKO EGUNKARIA ▶ 2006ko irailaren 7a, osteguna ▶ IV. urtea

GAURKO EGURALDIA

goizez



arratsaldez



beroena

23

hotzena

18

BIHARKO EGURALDIA

goizez



arratsaldez



HITZA-KO BEZEROEN ARRETA ZENBAKIA

943 30 43 46

AGENDA ▶

DEIALDIAK

Tolosa. Alpino Uzturre mendi elkarreak irteera antolatuta du Pirinioetara, asteburu honetan. Izen-ematea Gudari kaleko 5. zenbakian edo 943 65 27 89 telefono zenbakian. Interesatuak 40 euro ordaindu beharko dute.
Zizurkil. Etxeretek deituta, manifestazioa egingo dute 20:30ean, Joxe Arregi plazatik abiatuta, *Iñaki askatu!* lelopean, Iñaki De Juana euskal presoaren askatasuna aldarrikatzeko.

JAIAK

Alkiza. Egitaraua: 16:00etan, haur jolasak; ondoren, Toka Txapelketa; 21:00etan, barrikotea; ondoren, Agurtzane eta Ion Elustondoren eskutik erromeria.
Lizartza. Egitaraua: 19:00etan, poteoa; 20:00etan, kalejira Karobitxulo trikitixa taldearekin; ondoren, koadrilen arteko afaria; gauerdian, txupinazoa eta danborrada.
Zizurkil. Egitaraua: 11:30ean, haurren txupinazoa Atxulondo kultur ebetik; ondoren, Pirritx eta Porrotx Joxe Arregi plazan; 17:00etan, Futbol Txapelketa Danena futbol taldearen zelaian; 20:00etan txupinazoa nagusia Atxulondotik; 21:30ean, koadrilen afaria Joxe Arregi plazan; 23:00etan, Gladys Mercado y sus Charros mariachi taldearen emanaldia.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur
Leitza. Larraia, M. I. Elbarren, 95. 112.
Tolosa. Santa Maria I. Nafarroa etorbidea, 2. 943 65 46 10.

TELEBISTA

Txolarre irratia (107.5, 101.2 FM)
 11:00-14:00. *Tolosaldeko ahotza* magazina: eguraldia Joxe Landarekin, Hitzaren errepaso, elkarrizketak, agenda, lehiaketa, disko eskainiak...
 18:00-19:00. *Adi Guri* irratsaioa, Anoetako Herri Ikastolako DBHko 1. eta 2. mailako ikasleen saioa.
 21:00-22:00. *Zaharrak berri*.
 22:00-23:00. *Street*

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Kostatik nahiz menditik

HITZA ARGAZKI LEHIAKETA ▶ Edozein txoko da egokia udako oporretan; Jaione Zubeldiak kosta aukeratu du eta Koldo Searak mendia



MONTE PERDIDO ▶


Koldo Seara (Villabona).

Villabonako Koldo Searak Pirinioetara egin du bidaiari uztailan. Aragoian (Espainia) izan da eta Monte Perdido gailurrera igo zen. Honako argazkia bidali digu Hitzaren lehiaketara. «Monte Perdidotik ikusten den ikuspegi ikusgarria», azaldu du.

BENIDORM ▶

Jaione Zubeldia (Alegia).

Jaione Zubeldia alegiarra Benidorm aldera (Herralde katalanak) joan da uda honetan. Kostan egonagatik, eraikuntza bat iruditu zaio deigarri paraje horietan; hotel bat da, baina ez edozein hotela, Espainiako altuena baizik. Hauxe azaldu digu Jaione argazkia ekartzekoan: «Benidormen geundela Espainiako hotelik altuena topatu dugu eta argazkia atera genion. Ezetz asmatu zenbat pisu dituen?» Ez da lan makala, ez, guztiak zenbatzea.



AGURRAK ▶



URTE ASKOAN
Irati Goikoetxea (Okariz).
 Pottoki, gaur 2 urte. Zorionak Tolosako aiton-amonaren partetik.

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

▶ HITZAren egoitza Tolosan Araba etorbidea, 5 behea

▶ HITZAren egoitza Leitzaan Udaletxeko bulegoa

hitza
 agurren tarte

Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak...